

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zotal	Gako antzeko sudur harekin, haren aurpegiak hondargune batean goldeak erditik ebakitako hiru zotalen antza zeukan.
potrozorri	— Ez gezurretan hasi nirekin, potrozorri inozo alahena...
zimiko	Despedida musu pare bat ere emango nion joan zenean, edo zimiko pare bat egin...
hozki	...bere iritziak hozki emateko moduan azalduz.
zipoka	— Ez Lennierekin zipoka hasi.
prestua	...andre batek gizon prestua zirkunstantzia haietan har zezakeen bezain ondo...
lohikeria	Nahita ere ezin izango nioke lohikeriarik leporatu...
lanteri	Lanteri hauek gehienetan banatuak egoten dira.
hatz eginago	...beharbada, ez nuen eskasiarik sufritzen, baina badakizue nola izaten diren gauza horiek. Hatz eginago eta gurago. Zenbat eta gehiago jan, gehiago nahi.
kuxkuxeatu	...ez direla inguruan inola ere kuxkuxeatzen ibiliko...
ahoa bete hortz	Tom ahoa bete hortz gelditu zen...
maripurtzil	Maripurtzil horri musu ematen diodan bakoitzean ahoa garbitzeko gogoa jartzen zaidak.
arramaskatu	...horma jo zuen, konturatu baino lehen zati bat ederki arramaskatuz .
perraka	...euria perraka hasteko zorian dagoela eta...
zamari	Zamari madarikatu horrek jo al hau ostikoz?
gobernatu	...andrea zerriak gobernatzeko erabili zuela...
alderoka	Myrarengana abiatu zen alderoka ...
itsumustuan	Bart itsumustuan nola etorri hintzen ari ninduan pentsatzen.
inude	...beraz, inude beltz bat jarri zidaten."
txorrotxori	... txorrotxoriekin batera zaldi kakak mokokatzerara bidaliko haut.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

pixagaleak egon

Kontua zera zen, **pixagaleak nengoela**. Baina ez nekien seguru barrura sartzeko nire txanda zen ala ez.

ixtukazo

...**ixtukazoa** balitz bezala bota zidan hitz zaparrada hau.

ttu egin

...tabakoa mastikatu eta **ttu egiten** ari ziren.

kazkabar jasada

...zekorrek **kazkabar jasada** ari duenean ateratzen dituen ainako marruak atera zituen.

arpa jo

...irribarre egin, **arpa jotzen** ibili eta beste aldera begiratzeaz gain...

lerdekatu

...Buckek tabako **lerdekatua** ixtu-ontzira bota eta puroari puska bat kendu zion mastikatzekeo...

iseka

...Jainkoari bere etxeko atarian bertan inork **isekarik** egin ez diezaion...

iruzurti

Apustu egingo nitek aritu haizela, **iruzurti** alahena, ez besteren ahalena.

fidakaitz

...Rose eta bioi begiratu **fidakaitza** eginez...

mizto

Mizto pozoidun putasemea! Niri kargu hartzen hasiko haiz, egindakoaren ondoren!

sheriffgo

Nik **sheriffgoan** bakarrik nekien. Egin nezakeen gauza bakarra zen.

porru eginda

...eta gainera **porru eginda** nengoela uste dut.

sastraka

Sasi eta **sastraketan** barrena sartu dira gero...

xularme

Xularme guztietatik ateratzen zaik, motel.

onddo-kapela

Traje zuri-beltz klasiko bat zeukan soinean, botinak eta polainak hanketan eta **onddo-kapela** horietako bat.

txoropito

Antiojodun **txoropitoek** gidatzen zituzten...

malkar

...hondorik gabeko **malkarrean** behera nindoala iruditzen zitzaidan...

aintziratsu

...eskualde **aintziratsuan** euri asko egin ohi du.

garaño

...inozoez **garañoek** bezain luzea dutela esan zidatek.

opo

...morroiak han zetozen atzean (...) niri **opoak** oinpean harrapatuz...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

orbandu	Han ziren aurpegi zurbilak, zizareek zuri-zuri bihurtuak eta eskorbutoak orbanduak .
kiribildu	...bere odol eta erraiek egindako putzuan kiribilduz .
txidortu	Ahoa txidortu egin zitzaion berriro eta begiak ere halatsu.
norbaitekikoak egin	Badakit (...) Ken Lacey sheriffa herriko kaleetan zehar Moose eta Curlyre-kikoak eginak zituela, eta erronkan ibili zela, hil zituela adierazi nahirik.
katramilaturik	...ez diat sekula lagun zaharrik katramilaturik utzi...
atxur	Kantitate pollit bat edaten bazuen (...) kristoren atxurra harrapatzen zuen.
xamalko	Xamalko gainean bilutsik zihoan emakume bat.
ziplo	Atake bat eman eta bertan ziplo eror zitekeen.
umegorri	Oraindik umegorri bat besterik ez nintzen...
maiseatu	...jendea maiseatzen nola ari zen esan nionean...
zerrama	Badiagu barruan zerrama batekin jotzen harrapatu duten morroi bat.
birao	Eta hura birao hotsa!
gandor	Aspaldian ez nion hain zakar hitz egin eta nolabait gandorra jaitsi zitzaion, horratik.
kuluska	Lennie kuluskadaka ari zen silan eseri eta begiak itxita.
lausengari	...ez zen batere erretratu lausengaria .
xarmant	Rose bezain neska xarmanta ...
alukeria	...paraje hartan bertan inork haiekin harrapatzea ere, alukeria ederra.
total eginak	Zalantzarik gabe ni iristerako total eginak izango ziren.
sasiko	Azkenean sasiko zikin horretaz libratu nauk.
erlats	Rose begira-begira gelditu zitzaion (...) ahotsa murmurio erlats eta ahula bihurturik.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

oxkatu	...Rosek primak ordaintzen segitu zuen, handik eta hemendik oxkatzen zionetik.
lasterbide	Berriro herri alderantz hartu nuen lasterbidetik ...
hozkatu	Rosek ezpaina hozkatu beharra izan zuen barreari eusteko.
zinegotzi	Udal zinegotziak beste zenbait funtzionarioekin agertu ziren...
korde	...laguntza eske bezala (...) edo kordea galtzeko zorian balego bezala.
gaztako	Ia gaztako ederra hartu nuen goizeko terrala zela medio.
zartada	...Roseri eskuaz zartadatxo batzuk eman nizkion bizkarrean adore emateko...
danbateko	Barrura sartu eta danbatekoz itxi zuen atea...
zurikeria	Ez hasi nirekin zurikeriatan , Nick!
kikara	Eta hark botatako zilarrezko kikarak ematen zidan zartakoaz...
bil-bil eginda	...nire besoetan bil-bil eginda jarri zen.
aihen	...beherago zintzilik dauden aihenetan lan egin behar.
arreguratsu	Beharbada ez gatoz gauza guztietan bat, baina tira, ez nauzu arreguratsua ...
imintzio	...zurikeriazko imintzioak eginez...
kakazu	Eta segun eta nondik begiratzen dioan (...) popatik hartzeko ere balio ez duen kakazuena duk.
kakalardo	Kakalardo malapartatu batzuk ziren...
pello	... pello itxurarik ez neukala garbi ikusi nuen arte.
moila	...etxe aurrean zegoen moila gainean etzanda.
egurtu	Eta horregatik beltzari heldu eta egurtu bat ematen ari zen.
jendaila	.. jendailarik ziztrinenari berari ere nazka emango lioketen gauzak...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

nozitu	...letorkiokeena nozitu behar din.
maindire	Uda zenez, ez zeukan kamisoirik soinean eta maindireak botata agerian zegoen. Ez zitzaion aurpegirik ikusten, ahuspez baitzegoen.
ohi	Izan ere, sheriff ohiaren andrea izateko (...) gogoia zeukan...
ahapeka	Rosek atximurka esnatu ninduen, zeharo izaturik eta ahapeka mintzatuz.
jalgi	Hasperen sakon bat jalgi zitzaion.
adats	Han gelditu nintzen, ile adatsa burkoetan zabalduta nola zeukan begira...
betizu	...bere itzalaz ere ikaratuko zen beldurti eta betizutat baitzeukan.
dardarizo	...eta dardarizo alu batek gorputza astintzen zion.
porrot egin	Ken hurrengo goizean azaldu zen (...) zuri-zuri eta porrot eginda .
ostruka	...burua tentte, kapelako ostruka luma aidean dantzan zeramalarik.
hazkure	...han nengoen ni zutik, begirik apartatu gabe, bero-bero jartzen, hazkurea ezin aguantatuz, eta azkenean alkandoraren botoiak askatzen hasi nintzen.
errita eman	Aurreregi joateagatik errita emateko zure era besterik ez da.
laineztuta	Laineztuta zebilzkidak.
zalangatu	Tomek (...) ez zuen gorputz hura " zalangatzerik " lortu.
alaena	Apustu egingo nitek aritu haizela, iruzurti alaena , ez besteren ahalena.
zurrunbilo	Hain arin hartu zuen buelta, ze haren gonak zurrunbiloan bildu baitziren.
orga	Berarekin igon nintzen haren orga lasterrera.
kalex	...nonnahi ikus zitezkeen (...) kalex apaindu liluragarriak.
aiherkunde	Ordura arte inorenganako amorrurik, aiherkunde zipitzik ez nuela sekula sentitu...
kankailu	— Kankailu alaena —esan zidan—. Ezinbesteko duen zerbait Lennie gizarajoari leporatzen hasiko ote haiz orain?

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

lausengu	Hauen ondoan aurrekoak lausenguak ziren.
begi	Ia-ia gerrikoaren begiari eman nion musu, aizu.
karramista	...batek atera ditzakeen karramistorik handienak atera izan ditut...
pikortu	...zartaikada kruspet arto pikortua ...
eragotzi	...sua ematea eragozteko zergatik ez hintzen han.
ezta hurrik eman	Baina hori ez zen dena, aditzen? Ezta hurrik eman ere.
zelatan	...leihoren batetik emakumeren baten zelatan ez bazebilen.
ezdeus	Nire denboran ikusi dudan gauzarik ezdeusena haiz hi.
entzungor	...haren deiari entzungor egin nion.
ezikusiarena egin	Berak ere ikusi ninduela seguru nekien, baina ezikusiarena egin zuen.
oztropoz egin	Oztropoz egin eta ia kristorena hartu nuen.
otzan	Hain bigun eta otzana ez balitz...
laineza hartu	...makarra batek Keni laineza hartuko balio.
aise	Hortik arrantzara joan zarela aise atera daiteke.
babo	Babo arraio bat haizelako.
oldar	...muturreko hura jende askorentzat oldar eta bortxakeria izan daiteke...
kargu hartu	Zein ostia haiz hi niri kargu hartzen hasteko?
sona	Batek sona lortu nahi duela eta erronkan hasten bada...
trenpuan	Ez, ez negon trenpuan ...
egitada	...eta hor nabil ni batetik bestera egitada onak eginez.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

xedera	...Myra xederan harrapaturik ikusteaz.
egarberatu	...pentsalari sakona (...) ez nekiela (...) baina egarberatua baietz behintzat.
ahal	—Erne ibiltzen ahal haiz, Nick Corey. Badakik bestela zer pasatuko zaian...
erronkan ibili	Badakit zure lagun den Ken Lacey sheriffa herriko kaleetan zehar Moose eta Curlyrekikoak eginak zituela, eta erronkan ibili zela, hil zituela...
erronka	...ez didak esango erronkan eta desafioka hastera ausartzen direnik...
ñir-ñir	Samen betazala ñir-ñir hasi zen.
izipu	Makarrek izipua hanka artean duala aurretik bidali hauteneko hotsa zabaltzen duk...
gonbitalarri	Ikutze hutsak gonbitalarria ematen dit.
txirtxilatu	Paretaren kontra txikitu zen eta benetan diot txirtxilatu zela.
arrabita	... arrabita musika hura eta perfume hura nora joanak ote ziren ezin asmatu.
ubeldu	Ez duk ubeldurik ageri, maitea. Zartaturik ere ez.
zoplasteko	Zoplastekoka aterarazi zuen Myrak gelatik.
apika	Tximista pare bat ere ikusi nuen eta, bueno, apika oinaztarriak...
hitzetik hortzera	...erantzun zidan hitzetik hortzera ...
marizikin	...alde guztietatik begiratuta zuen marizikin itxura...
zezeldu	Besoak aidean zerabiltzan eta han aritu zen auskalo zer zezeldu ...
gerizatu	Lenniek atzera egin zuen, marruka eta besoez gerizatuz .
asaldatu	Pixka bat asaldatu bezala egin zen.
trikimailu	Egia esateko berak sortua zela trikimailu hura.
bekoz beko	Barnesek buruari eragin zion eta bekoz beko begiratzen zidan.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

begitarte	—O! —esan zuen begitarte a ilunduz...
makina bat	Baina oso ederki ari ginen pasatzen, nik pentsatu bezala eta elkarri esateko makina bat gauza bagenuen.
ganbela	Kriseilua zegoen hondar ontzi baten gainean argi dardartia ganbela iladan zabalduz.
aztoratu	Taiuzko otordu bat egiteko aztoratuegia nengoen...
zentsatu	Nola nahi duk haiek zentsatzea ez badielik egurra ematen!
dandarrazka	...Myra zaldiaren uhalei eutsiz, Lennieren burua atzera eta aurrera dandarrazka .
hasperen	Hasperen sakon bat jalgi zitzaion.
alproja	Alproja bat haiz, eta alprojekin ibiltzea ez duk itxura onekoa.
pertika	Guardabarrosaren kontra jarririk nengoen pertikak askatzeko...
tramankulu	...ez daukagu azterketa zientifiko eta ikerketa sakonik egiteko tramankulurik .
xalo	...zure andre zintzo eta xaloa zerriak gobernatzeko ez baduzu erabili...
erretxindu	...hirea bezalako andre erretxindu baten zauriak...
ahuspez	Uda zenez, ez zeukan kamisoirik soinean eta maindireak botata agerian zegoen. Ez zitzaion aurpegirik ikusten, ahuspez baitzegoen.
mokadu	Irtzen baino lehen mokadu bat prestatu zioat...
barauts	Lennie bere barautsak irenstean ito beharrean jarri zen...
lerde	Han sartu zen (...) lerde jariora bazterretan zabalduz.
aixkiria	Baina biak elkarrekin zeudenean, aixkiria !
ahalena	Apustu egingo nitek aritu haizela, iruzurti alaena, ez besteren ahalena .
eskutik	Bera zen eskutik , eta bazekien gauzak okertzen zirenean nik atzera egiten nuela.